

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ZERBITZUEN TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

1. artikulua. IZAERA ETA OINARRIA

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106. artikulua emandako ahalmenak erabiltzeko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoarekin bat etorrira, udal honek hirigintza eta ingurumen zerbitzuen tasa eskatuko du ordenantza fiskal honetan xedatutakoaren arabera.

2. artikulua. EGITATE EZARGARRIA

Tasaren egitate ezargarria udalaren jardura teknikoa eta administratiboa da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak aipatzen dituen eta udal mugartean egin beharreko eraikuntza-ekintzak eta lurzorua erabilera aipatutako legean eta indarrean dauden gainerako xedapenetan jasotako hirigintza, eraikuntza eta polizari buruzko arauetara egokitzen diren egiaztatze, baita kontrol, ondorengo egiaztapen eta ikuskaritza jardura ere, aurretiazko jakinarazpen erregimenpean, eta, oro har, ikuskaritza, kudeaketa eta hirigintza-planeamenduekin eta bestelako zerbitzu teknikoen aurkezpenarekin lotutakoak.

3. artikulua. SUBJEKTU PASIBOAK

1.- Tasa honen subjektu pasiboak dira Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak, eta entitateak, eraikuntzak edo instalazioak egiten diren edo obrak egiten diren higiezin jabeak badira, edo hala badagokio, errentari direnak, edo kasuan kasu zerbitzua eskatzen edo jardueren onura jasotzen dutenak.

2.- Edozein kasutan, subjektu pasiboaren ordezkioak izango dira obren eraikitzaileak eta kontratistak. Horregatik lizentziak edo udal jardura eskatzean, kasuz kasu, eraikitzailea, kontratista eta jabea nor den bere datu guztiekin identifikatuta deklaratu beharko da.

4. artikulua. ERANTZULEAK

1.- Subjektu pasiboaren betebeharren erantzule solidarioak izango dira Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 38.1, 39 eta 41 artikuluetan aipatzen diren pertsona fisikoak edo juridikoak.

2.- Erantzule subsidiarioak izango dira sozietateen administratzaileak eta sindikoak, porroten, lehiaketen, sozietateen eta oro har erakundeen kitatzaileak edo esku-hartzaileak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

5. artikulua. TASAREN KUOTA

1.- Egite ezargarri bakoitzerako tasa kuota epigrafe hauetan finkatutakoa da:

Jarduera tekniko eta administratiboaren deskribapena	2022 (€)
1. Obra txikiak, kostuaren arabera:	
1.1- 300 eurotik beherakoak	16,44
1.2- 300,01 euro eta 601 euro bitartekoak	32,89
1.3- 601,01 euro eta 1.502 euro bitartekoak	65,75
1.4- 1.502,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	154,18
1.5- 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	257,18
1.6- 6.010,01 eurotik gorakoak	308,71
2. Obra handiak, kostuaren arabera:	
<i>2.1-Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020 eurotik beherako kostua daukatenak:</i>	
2.1.1- 601 eurotik beherakoak	72,72
2.1.3- 601,01 euro eta 3.005 euro bitartekoak	284,11
2.1.4- 3.005,01 euro eta 6.010 euro bitartekoak	341,33
2.1.5- 6.010,01 euro eta 12.020 euro bitartekoak	1.030,37
<i>2.2-Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetako obrak, 12.020,01 eurotik gorako kostudunak</i>	1.534,33
<i>2.3. epigrafea: Eraikin berriak</i>	
2.3.1- Zuinketa akta	1.280,94
2.3.2- Obra lizentzia	2.001,40
3. Lur zatiketak:	
3.1- Urdaibaiko Patronatura bidali barik	283,33
3.2- Urdaibaiko Patronatura bidalita	323,79
4. Lizentziaren luzapena	
4.1- Obra nagusiaren lizentziaren luzapena	170,94
4.2- Obra txikiaren lizentziaren luzapena	29,84
5. Lizentziaren titularitate aldaketa	
5.1- Obra nagusiaren lizentziaren titularitate aldaketa	170,94
5.2- Obra txikiaren lizentziaren titularitate aldaketa	29,84
6. Lizentzia eman ostean proiektua aldatzea	170,94
7. Jarduera edo berari lotutako zerbitzuak iragartzeko errotuluak edota kartelak jartzeko lizentzia	32,38
8.-Hirigintzako kargak baliogabetzea	1.891,76
9.-Planeamenduko tresna hauek tramitatzea, ekimen pribatuak bultzatuta:	
9.1- Urbanizazio proiektua	472,92
9.2-Ekimen pribatuak bultzatutako xehetasun azterlanak	7.197,41

9.3- Ekimen pribatuak bultzatutako xehetasun azterlanen aldaketa	4.318,45
9.4- Ekimen pribatuak bultzatutako urbanizazio proiektua	7.197,41
9.5- Ekimen pribatuak bultzatutako urbanizazio proiektuen aldaketa	4.318,35
9.6- Ekimen pribatuak bultzatutako errepartzelazio proiektua	7.197,41
9.7- Ekimen pribatuak bultzatutako errepartzelazio proiektu aldaketa	4.318,45
9.8- Ekimen pribatuak bultzatutako plan berezia	7.197,41
9.9- Ekimen pribatuak bultzatutako plan bereziaren aldaketa	4.318,45
9.10- Ekimen pribatuak bultzatutako plan partziala	7.197,41
9.11- Ekimen pribatuak bultzatutako plan partzialaren aldaketa	4.318,45
9.12- Ekimen pribatuak bultzatutako plan orokorraren aldaketa	4.318,45
9.13- UJP prestatzea (urbanizatzeko jarduketa programa)	7.197,41
9.14- UJP aldatzea	4.318,45
10.- Hirigintza aprobetxamenduen transferentziak	1.517,32
11.- Hirigintzako txostenak, zedulak eta kontsultak:	
11.1- Urdaibako Erreserba Biosferaren Patronatura bidali barik	110,53
11.2- Urdaibaiko Erreserba Biosferaren Patronatura bidalita	150,75
11.3- Lerroakadurak eta sestrak ipintzea	90,45
12.- Neurketak eta egiaztapenak	281,37
13.- Bizigarritasun edo eraikina lehenengoz hartzeko lizentzia	1.045,17
14.1- Urbanizazio berriak hartzea	1.616,88
14.2- Urbanizatzeko jarduketa-programak	567,34
14.3- Hitzarmen-sistema: hitzarmen-batzarra	567,34
15.- Zabaltzeko lizentziarik ez dela behar egiaztatzen duten agiriak	25,08
16.- Jabari publikoa erabiltzeko edo aprobetxamendurako lizentziak (lizentzia ondoriozko okupazio tasatik aparte:	
16.1- Herri guneak erreserbetako lizentzia	377,02
16.2- Aldi baterako pasabideak (plakak barne)	438,35
16.3- Pasabide iraunkorrak (plaka barne)	402,51
16.4- Ostalaritza establezimenduetako terrazak -mahaiak eta aulkiak	58,53
16.5- Azokatxoko postua	69,25
16.6- Beste ordenantza fiskalen baten espresuki aurreikusita ez dauden bestelako erabilera edo aprobetxamenduak	33,77
16.7- Pasabide iraunkorraren plaka berria edo aldi baterako pasabidearen plaka barri bakoitza	17,17
17.- Desjabetzeak	575,28

18.- Lurzoruaren udal ondareen eta orubeen erregistroaren kudeaketa:	
18.1- Orubea erregistroan sartzen denean	434,85
18.2- Orubea nahitaez saltzen denean: salmentaren esleipen balioaren %1,5	
19.- Aurri espedienteak:	
19.1 Jabe bat	580,73
19.2 -Jabe bi eta lau bitartean	1.734,14
19.3- Bost eta bederatzi jabe bitartean	4.065,23
19.4 - Hamar jabe edo gehiago	5.807,48
20.- Aginduak:	
20.1- Obrak egiteko agindua: Obra horri dagokion tasa %50 gehituta. Gutxieneko zenbatekoa: 820,00€	850,81
20.2- Obra bako egite aginduak	350,21
21.- Higiezinaren egoeraren gaineko txostenak	339,84
22.- Ordezko exekuzioak:	
22.1- Obra eta eraispeneren ordezkotik aparte	1.221,21
22.2- Segurtasun, osasun eta apaintasun publikoari dagokien agindua ez betetzearen ordezkotik aparte	610,60
23.- Hornikuntza-zerbitzu publikoak ustiatzen dituzten partikular edo enpresek zorupean kableak, hodiak edo antzeko elementuak izango dituzten instalazio berriak, jabari publikoko lursail edo bideetan egin beharrekoak, egiteko lizentziak	572,64
24.- Erabilera aldaketa eskariak (lokala etxebizitza izateko eta horrelakoak), obra lizentziatik aparte	400,75
25.- Etxe babestu eta tasatuen kudeaketa (promotorearen ordezkotik udal administrazioak egindakoa), etxeko	1.334,18
26.- Baimena behar duten ekintza pribatuak :	
26.1- Etxebizitza tasatuen salmentak edo baldintzak aldatzea baimentzea	33,35
26.2- Salmentarako edo eskuz aldatzeko baimena behar duten bestelakoen baimena	33,35

2.- Herriko irabazi asmo gabeko elkarteek edo taldeek antolatzen dituzten ekimenen okupazioaren lizentziagatik ez da tasarik ordaindu behar, gizarte, kultura edo kirol arloko jarduerak bultzatzeko ekimenak badira eta Bermeoko Udala ekimenen kolaboratzaile edo antolatzaile baldin bada.

6. artikulua. SALBUESPENAK ETA ZERGA HOBARIK

Tasan ez da inolako salbuespenik, ezta hobaririk egingo.

7. artikulua. SORTZAPENA

1.- Tasa ordaindu beharra egitate ezargarria dakarren udal jarduera hasten denean sortuko da. Horretarako, edozelan ere, jarduera hasi egin dela ulertuko da subjektu

pasiboak dagokion hirigintza lizentziaren eskaera aurkezten duen egunean edo dagokion aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duenean.

2.- Obrak dagokion lizentzia lortu gabe edo dagokion aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe hasi edo gauzatu badira, dena delako obra baimentzeko modukoa den ala ez erabakitzeko udal-jarduera benetan hasten denean sortuko da tasa, hauek baimentzeko edo eraisteko administrazio-espedienteen kalte barik.

8. artikulua. KUDEAKETA ARAUAK

1.- Orokorrean Tributu Kudeaketa Sailak egingo du kitapena, udal organoen erabakietan oinarrituta edo espedientea izapidetu duen sailak berri emanda, 9. artikuluan jasotako kasuetan izan ezik.

2.- Hirigintza lizentzia eman edo alde z aurreko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu ondoren, behin behineko likidazioa egingo da, eskatzaileak adierazitako aurrekontuaren arabera. Udal administrazioak kostu erreala eta efektiboa egiaztatu ahal izango du eskatzaileak adierazitako obrak amaitu ostean, eta egiaztapen horren emaitzaren arabera, dagokion behin betiko kitapena egingo du kitapen osagarri bidez, eta, hala badagokio, behin-behinekoan ordaindutakoa egokituko du.

Horretarako, obra handietako titularrek obren kostu erreala eta efektiboaren adierazpena aurkeztu behar dute erabileraren edo bizigarritasunaren lizentziaren eskabidearekin batera.

3.-Lizentziaren titularitate aldaketaren kasuan behin betiko kitapena titular berriak ordainduko du. Lizentziaren eskualdatzearekin batera hasierako proiektuaren aldaketa ere eskatzen bada, egitate ezargarri desberdinak ematen direnez, bi epigrafeak ordaindu beharko dira.

4.-Tasaren zenbatekoa adierazitako moduetako edozeinetan sortu ondoren ordainduko da. Eskatzaileak uko eginez gero, eta hirigintza zerbitzu publikoa eman bada, ez da ordaindutako tasa itzuliko.

5.- Jabari publikoaren erabilera edo aprobetxamendurako lizentzien epigrafeak ordaindu beharko dira, erabilera edo aprobetxamenduari dagokion tasaren kalte barik.

9. artikulua. AUTOKITAPENAK

1.- Tasaren ordainketa autokitapen araubidean eskatuko da eta aurreko komunikazioaren erregimenpean egongo dira hirigintzako ordenantzan zehaztutako kasu zehatz hauetan:

- a) Obraren edo eraikuntzaren aurrekontuak 18.000€-ko kopurua gainditzen ez badu, BEZa kontuan hartu gabe.
- b) Eraikinaren egitura eta fatxada ez badira aldatzen.
- c) Etxebizitzaren banaketarik ez bada aldatzen.
- d) Egurrezko egitura duten eraikinetan ez bada sukaldeetako eta komunetako zorua aldatzen.

2.- 16.4, 16.5 eta 16.6 epigrafeetan agertzen diren zerbitzuak emateagatik sortzen den tasa autokitapen araubidean eskatuko da.

3.- Autolikidazio kasu hauetan udal administrazioan aurkeztu beharko dute aitorpen hori, udalaren eredu ofizialean. Eredu horretan tasa hau osatzen duten elementuak eta kuota finkatzeko beharrezko eta ezinbesteko diren gainerako datuak agertuko dira. Kuota hori aitorpena aurkezten den unean ordaindu beharko da.

4.- Obrak aldeztu aurreko komunikazioaren mende badaude, eta udal zerbitzuek gerora egiaztapen edo ikuskapenak egin badizkiete, sortuko den tasa administrazioak likidatuko du, ordaindu ahal izateko.

12. artikulua.

1.- Udalak adierazitako epean aitorpen-likidaziorik egin ez duten zergapeko egitateak atzemango balitu, eta horietarako behar diren obra edo hirigintza-lizentziak ez badira eskuratu, interesdunei behin behineko aitorpen edo likidazioa egiteko eskatu ahal izango die 15 laneguneko epea emanda, eragindako zerga arau-hausteei eta, hala badagokio, sortzen diren zigorrei kalterik egin gabe.

2.- Nolanahi ere, ofizioz espedientea ireki ahal izango du udal administrazioak bere esku dagoen informazioarekin, edo udal teknikariek egindako balorazioetatik lortutakoekin, eta behin-behineko likidazioa, osagarria edo behin betikoa egingo da, dagokion behin-behineko, osagarri edo behin betiko likidazioa igorrita, ordaintzeko epeak eta jar daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren adierazita, aplikatu daitezkeen zigorrak eta arau-hausteen kalte barik.

13. artikulua. ZERGA HUTSEGITEAK ETA ZEHAPENAK

Zerga arau-hausteen eta horien kalifikazio desberdinen inguruan, baita kasuan kasuko zigorren inguruan ere, Tributuen gaineko Foru Araua eta Zergen Kudeaketa, diru-bilketa eta zerga ikuskapenen ordenantza orokorreko arauak aplikatuko dira.